

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Osteguna, 2012ko urtarrilaren 26a. IX. urtea. 2.349. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Itziar Gastearena Futbolaria

«Reala buruan izan arren, bertan jokatu nuenik ez nuen pentsatu inoiz»

Futbolari billabonatarak Realean jokatzen du, emakumezkoen lehen mailan **o6**



HITZA



Arantxa Aburuza alkate ohia eta Josu Amilibia alkate berria, Adunako udaletxeko batzar aretoan. A.IMAZ

Amilibia da Adunako alkate berria, Aburuzak kargua utzi ondoren

Arantxa Aburuza zortzi urtez izan da Adunako alkatea eta «arrazoi pertsonalengatik» ez du jarraitu nahi izan; bere ordeaz, orain arte zinegotzia zen Josu Amilibia izendatu du udalbatzak **o5**

May Colmeneroren ikasleen lanak, ikusgai Aranburun

Pintura irakasle tolosarraren 62 ikaslek euren artelanak zintzilikatu dituzte aretoan; artista gazteek erakusketa prestatzeko erakutsitako gogo nabarmendu du Colmenerok **o4**

Alurr dantza taldearen lan berria martxoan estreinatuko dute

Nafarroako historia kontatuko du Ibarako taldeak '1512, izanak dirau' ikuskizunaren bitartez **o7**

Migel Zeberio Et Incarnatus-eko zuzendaria

«Hainbeste talde mugiaraztea esfortzu ikaragarria da»

Et Incarnatus orkestrarekin batera, hainbat musikaririk eta taldek kontzertu berezia emango dute, bihar, Tolosako Leidor aretoan **o2**

Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean

liburua erosteko aukera duzue:

• **Liburudendetan:** Prezioa 21 € eta harpidedun txartelarekin 18 €

Anoetan: Kuku-lore liburudendan.

Ibarran: Lurdes liburudendan.

Tolosan: Aramburu liburudendan, Elkar liburudendan eta Babel liburudendan.

Villabonan: Kazetaria liburudendan.

• **HITZAko bulegoan:** Prezioa 18 € eta harpidedunek 15 €

• **Eskaintza berezia**

HITZAren egoitzara etortzean, '1936ko Gerrako Oroitzapenak' liburua ere eskuratu ahal izango duzue: prezioa 10 € eta harpidedunek 8 €. Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean + 1936ko Gerrako Oroitzapenak, bi liburuak, 25 €, harpidedunek 20 €.



Migel Zeberio ◦ Et Incarnatus orkestrako zuzendaria

Baigorriko Nafarroaren egunean egindako emanaldi batetik sortu zen, bihar Leidorren, 20:30ean ikusi ahal izango den emanaldiaren ideia. Et Incarnatus orkestra eta hainbat musikari ariko dira oholtzan.

«Herrikideek egiten duzun lanari oniritzia ematea bezalakorik ez dago»

Itzea Urkizu Tolosa

Migel Zeberio (Tolosa, 1966) hamasei urte daramatza Et Incarnatus orkestran zuzendari lanetan. Bihar, Euskal Herriko hainbat txokotako musikariek batera ariko dira Leidorreko oholtzan, Baigorriko gaiteroekin, Enaut Elorrietarekin, Amaren Alabak taldearekin eta Lask Abesbatzarekin batera prestatu baitute kontzertua. Gainera, eskualdeko musikari eta dantzariak ere ariko dira; horren adibide dira, Itsaso Etxebeste, Jon Arruebarrena, Anton Telleria, Maddi Garikano eta Juan Urretabizkaia. Emanaldiaren inguruan aritu da Zeberio **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA** egunkariarekin.

**Zer ikusiko dute ostiralean Leidorre-
ra bertaraten direnek?**

Ba gauza asko ikusi ahal izango dituzte. Kartelean ikus daitekeen bezala, talde asko ariko gara elkarrekin, eta honen arrazoia Et Incarnatus orkestrako kideok Baigorriko Gaiteroekin dugun harremanetik dator; badaramatzagu urte batzuk beraiekin elkarlanean. Dultzaina jotzeaz gain, Baigorriko Gaiteroek urtero Nafarroaren Eguna antolatzen dute han, udaberri inguruan. Urtero, musikaren inguruan zerbait berria eskaintzen eta sortzen saiatzen dira; gaitaren soinua txertatzea gustatzen zaie, baina ahal duten neurrian, hemen inguruko zein kanpoko talde, formazio eta estiloak uztartzen saiatzen dira. Normalean, beti gauza berriak izaten dira, eta guk iaz parte hartze zortea izan genuen, eta bai-

ta duela hiru urte ere; bertan sortu zen, beraz, Leidorreko emanaldiko ideia. Gutxi-gorabehera, han eskaini genuen antzeko formatoa izango du biharkoak ere. Tolosak dituen bereizgarrietara egokitutako aldaketa batzuk izango ditu kontzertuak, eta Inaute-garaiak hurbil dagoela ere nabariko da ikuskizunean, baina esan bezala, Baigorriko hari berari jarraituko diogu.

Eta zer nolako errepertorioa prestatu duzue emanaldi honetarako?

Programan askotariko doinuak daude. Egia esan, errepertorio zabala da, eta doinu eta piezak normalean entzuten ez diren formatuak entzuteko aukera eskainiko du kontzertuak. Adibidez, Ken Zazpiren musika orkestraren laguntzaz entzuteko beste aukerarik ez da izan momentuz. Musikari horiek guztiak emanaldia osatzean, Euskal Herriko hainbat lekutako kideak elkarrekin aritza lortu dugu, Bizkaitik Zuberoaraino; beraz, koloretua izango da emanaldia.

Et Incarnatus emango al du kontzertuaren haria?

Bai, hori da. Emanaldian hasieratik bukaeraraino oholtza gainean egongo den taldea, Et Incarnatus izango da. Gainerako parte hartzaile guztiak konbinatzen joango dira kontzertu osoan zehar, eta amaieran guztiok batera ariko gara Leidorreko eszenatokian. Jendea kantuan jartzea espero dugu.

Erkki Pohjolaren omenez egin zenuen kontzertuak ere antzeko formatua zuen. Nolako da hainbeste jenderekin elkarlanean aritza?

Formato hura oso-oso handia izan zen, erraldoia! Hau ez da hainbestearinokoa, eta beste kontzeptu bat da. Interpretatuko dugun musikari dagokionez, errepertorio ezagunagoa entzun ahal izango da bihar; Pohjolaren omenaldian literatura sakona eta Finlandiako doinuak nahastu genituen, eta 300 lagunek parte hartu genuen. Edonola ere, hainbeste talde mugiarazteak esfortzu ikaragarria eskatzen du, eta elkarlana emankorra izan dadin, talde bakoitzak asko jarri behar du bere aldetik. Izan ere, parte hartuko dugun guztiok gure izaera musikal propioa dugu, baina borondatea behar da, gero elkarrekin lanean aritzea. Era berean, horrelako gauzak antolatzean ere, aurrekontuei dagokionez beti larri ibili behar izaten da, pentsa daitekeen bezala, kostu handia dakarrelako horrelako zerbaitek. Beraz, gerrikoa estutzen saiatu behar da, bestela ez dago modurik horrelako gauzei aurre egiteko.

Hainbeste lagun izanda, nola antolatzen zarete oholtza gainean entseguak egiteko?

Entseguak ere oso konplexuak dira horrelakoetan. Batetik, jende asko garelako, eta bestetik, parte hartzaileetako batzuk urrutetik datozelako. Era guztietako konbinazioak egin ditugu: neroni joan izan naiz kanpora, eta ahal izan dugun neurrian saiatu gara erdi-bideko lekuetan elkartzen. Tolosan entsegu bat egin genuen, eta Donostian beste batzuk ere bai; hala ere, lan asko posta elektronikoki bidez egin dugu. Antola-



J. SAIZAR

mentuz gain, ordea, teknikoki ere gauza konplexua da, horrelako emanaldi batek baliabide sendoak eskatzen baititu. Urteen poderioz eskarmentua lortzen ari gara pixkanaka, eta emaitza jendeak oso ondo pasatzeko modukoa izango dela uste dut.

Lehen aipatu dituzun parte hartzaileez gain, hainbat tolosarek ere parte hartuko dute emanaldian.

Bai. Anaia eta biok emanaldia prestatzen ari ginela, guk noiz-bait mundu profesional honetan lehen aldiz, muturra sartzeko aukera izan genuela pentsatu genuen. Horrela beraz, musikari profesionali deitu diegun bezala, mesede asko eskatu izan dizkiegun eskualdeko musikariei ere horrelako kontzertu batean parte hartzeko aukera ematea bururatu zitzaigun. Musikari hauek, besteak beste, Lask abesbatzaren diskan parte hartu berri dute, eta

bidea egiten laguntzea ere gauza polita da. Beraientzat ere esperientzia polita izatea espero dut.

Sarrera gehienak saldu dira jada. Horrek gogoare gehiago pizten al du?

Gogoia beti izaten da. Baina noski, jendeak erantzun ona eman duela ikusteak poza ematen du; azken finean, horrelako emanaldi baten helburua entzuleen belarria da, eta gu entzulegorik gabe ez gara ezer. Beraz, jendeak gure proposamenen haria jarraitzen duela ikusteak, segurtasuna ematen du; bestalde, konpromisoa ere aregotu egiten da, baina saiatuko gara, jendeak sarrerak erosiz izan duen esker ona itzultzen. Eta ez dadila azkena izan! Periodikoki gure presentzia bermatu nahiko genuke Tolosan. Izan ere, Et Incarnatusen batzuk bertakoak gara, eta herrikideek egiten duzun lanari oniritzia ematea bezalakorik ez dago.

→ Laburrak**Asis Sarearen hileroko otoiizaldia gaur**

GIZARTEA › Gaur, Asis Sarearen hileroko otoiizaldi bilkura izango da Tolosako Klarisen komentuan, 19:30ean. Informazio gehiago nahi duenak 646 21 48 96ra dei dezake, edo www.asissarea.org-en sartu.

'Izalgo Juanito' txiste kontalaria gaur Orbelan

GIZARTEA › Irailen ikasturtea hasi zenez geroztik, Tolosako Orbela tabernak kultur ekitaldiak antolatzen ditu hilabeteko azken ostegunean. Gaur afa-londonan, «urtea umore pixka batekin hasteko», Juanito Mendizabal idiazabaldarra, Izalgo Juanito txiste kontalaria, ariko da *Orbelako gauak* ekimenaren barruan, bere ikuskizuna eskainiz.

Tolosa Kantariko entseguak gaur musika eskolan

GIZARTEA › Larunbat honetan, hilak 28, urtarileko Tolosa Kantari izango da, betiko moduan, Tontokaletik 12:00etan abiatuta. Hilabete honetan, Inauterietako doinuak abestuko dituzte, eta txaranga lagun izango dute kantariak. Azken entseguak gaur iluntzean egingo dute, 20:00etan, musika eskolan, eta antolatzaileek sarrera librea dela azaldu nahi izan dute.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Berastegiarrak ere bat egin dute hileko azken ostiraleko aldarrikapenekin



Azken ostiral honetan Pello Odriozola gogoan izango dute, Tolosan. HITZA

Hileko azken ostirala izango da bihar, urteko lehen; elkarretaratzeak izango dira Tolosaldean eta Leitzaldean

Eneritz Maiz

Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat herritan, preso eta iheslarien eskubideen alde hileko azken ostiralean elkarretaratzeak egingo dituzte. Herrien zerrendari, oraingoan, Berastegi gehitu zaio. Herriko plazan elkartzeko dira 19:30ean. Azken hilabeteetan, Irura, Berrobi edota Gaztelu herriak gehitu dira hileko azken ostiraleko elkarretaratzeetara.

Tolosaldean eta Leitzaldean, beraz, gero eta herri gehiagotan irteten dira kalera hileko azken ostiraleko elkarretaratzeetan parte hartzera. Tolosan, 19:30ean, Trianguloa plazan elkartzeko dira, eta «euskal presoak Euskal Herrira eta bereziki, Pello etxera» aldarrikatuko dute. Larunbatean, Pello Odriozolak 24 urte bete-ko ditu preso dagoela.

«Ikaragarria izan da»

Tolosaldeko Egin Dezagun Bidea ekimenak, urtarrilaren 7an Bilbon egin zen manifestazioren inguruko balantzea egin du: «Hasteko, esan behar da ikaragarria izan dela Tolosaldeko herritarrok presoen aldeko mobilizazio kolosalari eman genion babes». Ekimenetik azaldu dutenez, manifestazioak «dimentsio historikoa» hartu zezan, «asko izan dira propaganda jartzen aritu direnak, asko izan dira ingurukoak animatu dituztenak, ekimenean parte hartu dutenak, komertzioan karteltxoak jarri dituztenak, tabernan pegatinak jarri dituztenak, era batera edo bestera atxikimendua eman dutenak... eta

↓ Azken ostirala

BIHAR

- **Aduna.** 20:00etan.
- **Alegia.** 19:30ean.
- **Amezketeta.** 19:30ean.
- **Anoeta.** 19:30ean.
- **Asteasu.** 20:00etan.
- **Berrobi.** 19:30ean.
- **Berastegi.** 19:30ean, plazan.
- **Gaztelu.** 20:30ean, plazan.
- **Ibarra.** 19:30ean.
- **Ikaztegieta.** 20:30ean, Irura. 19:30ean, plazan.
- **Txarama.** 20:15ean.
- **Leitza.** 20:00etan.
- **Lizartza.** 20:00etan.
- **Orendain.** 20:00etan.
- **Tolosa.** 19:30ean.
- **Villabona.** 20:00etan.
- **Zizurkil.** 20:00etan.

denak izan gara beharrezko Bilbon erakutsi genuen indarra biltzeko», azpimarratu dute. «Benetan txalotzekoa izan da guztion artean egin dugun lana, eta emaitzak hala erakusten digu. Tolosalde-
detik 18 autobus joan ginen Bilbora. Benetan ikaragarria!», gaineratu dute.

Bilbon 110.000 pertsona baino gehiago elkartzera lortu zela gogora ekarri dute, eta azken hamarkadetakoa «mobilizaziorik jendetsuen» izan zela. Bilboko kaleak bezalaxe, «governuei ere gainezka egin die presoen aferak. Horregatik azken asteetan frogatzen

↓ Datua

18

■ **Autobus.** Tolosalde-
detik, urtarri-
aren 7an, 18 autobus aterata ziren Bilbon presoen eskubideen alde egin zen manifestaziora.

ari garen bezala, saihestezina egingo ari zaie kartzela politikan eman beharrezko urratsez mintzatzeari, azaldu dute. Herri eskakizunei entzunger egiten jarraitzea ezinezko egingo zaiela azpimarratu dute.

«Herritarroan dago aldekaren giltza. Herritarrok egoera berriak sustatzeko gaitasuna dugula frogatu dugu, eta gobernuak egoera berri horiei eta herri eskakizunei erantzuna emateko hala-beharrean aurkitzen dira», diote ekimenekoek.

«Gero eta jende gehiago»

Egin Dezagun Bidea ekimenean gero eta jende gehiago biltzen joan dela adierazi dute: «Herri, hiri eta auzoetan hedapen handia izan du denbora laburrean, eta dinamika handiak sortuz joan dira. Datozen asteetan, herri bilguneen artean hausnarketa egingo dugu, sortu den dinamika zabal hau nola egituratu zehazteko, eta garapena izan dezan behar dituen tresnez hornitzeko».

Azken hilabeteetan, «mota guztietako eragileen aldetik, presoen eskubideen aldeko konpromisoa sendoa gorpuztu da». Horrez gain, «gaur posible izan ez diren adostasunak etorkizunearan posible izango direla», pentsatzen dute. Horregatik, «eragileen konpromisoa modu eraginkorrean antolatze eta adostasun berriak eraikitze eta karrizketa lan zabalaren egiten jarraituko dugu», diote.

Mobilizazioekin jarraitzea garrantzitsua dela pentsatzen dute ekimeneko kideek: «Bilbotik Euskal Herri osora hedatzeko bidea egingo jarraitzeko giltzarri nagusia mobilizazioa dela uste dugu». Horregatik, bihar, azken ostiralarrekin, Tolosaldeko hainbat herritan burutuko diren ekimenean parte hartzera gonbidatzen dituzte herritarrek.

→ Laburrak

Gaur, 14:00etan, ohiko osoko bilkura egingo dute

AMEZKETETA › Amezketako udal-letxean, gaur, 14:00etan, ohiko osoko bilkura egingo dute. Abenduaren 29an eginiko ohiko bilkuraren akta agiria onartzea, alkatetzaren ebazpenen berri ematea, Kutxako gobernu organoan udalen ordezkari-
era-
mango duen kontseilari orokorren izendapenerako agrupazioaren osaketa, Kutxako administrazio kontseiluari buruzko mozioa, batzordeen informazioa, eta galdera eta erreguak jorratuko dituzte.

Julian Bereziartua medikuarekin solasaldia

IKAZTEGIETA › Kultur ekitaldiekin bukatzeko, Julian Bereziartua medikua izango da, Ikaztegieta. Bihar, 21:00etatik aurrera medikuntzaren inguruan hitz egiteko aukera izango da udal-
txeko aretoan. Herritar guztiak gonbidatuta daude.

'Katillukadak' emanaldia 16:30ean izango da

VILLABONA › Hil honetako kultura programazioa akats batekin aterata da, eta igandeko txo-
txongilo emanaldia ez da 12:30ean izango. 16:30ean hasiko da, eta Gurea Antzokian izango da. Obraren izena *Katillukadak* da, eta 4 eta 14 urte arteko haurrentzat pentsatuta dago. Doan izango da.

Lodosako ikastolaren alde giza katea egingo dute

TOLOSA › Gaur, 09:45ean, giza katea egingo dute Sakramentinoetatik hasi eta Usabalera. Laskorain Ikastolak bat egin nahi du Lodosako ikastolarekin, eta dirua biltzea dute helburu. Lodosako ikastolaren aldeko mezuak eramango dituzte. Ondoren, Usabalera, txistor pin-
txoak eta freskagarriak salduko dituzte. Jarraian, Sakramentinoetatik patioan, bildutako txanponak ilaran jarri irudimenezko bidea osatuko dute, hau da, Tolosatik Lodosarako. Arratsaldean, euro baten truke txokolate beroa banatuko dute.

Tolosako Ekinbide Etxeak EHU-Donostiako Orfeoia saria jasoko du

Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa antolatzen daramatzan urteengatik saritu du EHUko epaimahaiak

Erredakzioa Tolosa

Euskal Herriko Unibertsitateko epaimahaiak hala erabakita, Tolosaldeko Ekinbide Etxeak EHU-Donostiako Orfeoia saria jasoko du. Otsailaren 3an izango da sari banaketa, eta Nazioarteko Abesbatza

tza Lehiaketa antolatzen daramatzan urteengatik sarituko dute.

Datorren urrian, abesbatza lehiaketa antolatzen 44 urte bete-ko ditu, eta gaur egun lehiaketaren gidaritzan daraman Luis Miguel Espinosak, berriz, 25 urte bete-ko ditu lan horretan.

Sari banaketa ekitaldia 19:00etan hasiko da, EHUren Donostiako campuseko Ignacio Maria Barriola eraikinean dagoen auditorioan, eta ekitaldian bertan Donostiako Orfeoia ere izango da.

o tolosa@hitza.info

Iragarki laburrak

ALOKAGAI

■ **Etxebizitza.** Alegiako San Juan kalean; 3 logela, terraza eta bi trasterorekin. Interesatuek, deitu 626 867636 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Leitzan etxebizitza salgai. Aukera ezinhobea, Lehendabiziko pisua, oso egoera onean. Bizitzera sartzeko prest. 90 m². Sukaldea, bainua, hiru logela handi eta trasterlekua. Igogailua jarri berria

eta berogailuarekin. Interesatuek, deitu 649 208 310 telefono zenbakira.

■ **Denda.** Frutategia, arrandegia eta urdaitegia dituen denda salgai Ibarren. Aukera bikaina da. Interesatuek, deitu 636 143 514 telefono zenbakira.

LANA

■ **Zaintzailea.** Emakume euskalduna behar dugu, adineko pertsona bat zaintzeko Bidan. Interesatuek, deitu 639 214 555 telefono zenbakira.

Talde erakusketa jarri dute Tolosako Aranburu jauregian: May Colmeneroren ikasleen margolanak

Imanol Garcia

Tolosako Aranburu jauregia arte-lanez bete da. May Colmeneroren 62 ikasleren lanak daude ikusgai. «Nire ikasleek ez dakite zer den erakusketa bat, zer den katalogo bat. Modurik hoberena hori jakiteko erakusketa bat egitea da», azaldu du Colmenerok. Artistak sei eta hamabost urte artekoak dira, eta margolan bakoitzaren ondoan egilearen izena azaltzen da.

Horrelako ekimen bat aurrera eramateko motibazioa «garrantzitsua» dela esan du pintura irakasleak, eta «ilusio handiz» egindakoa izan dela gaineratu du. Ikasleez gain, Colmenero berak ere hainbat koadro zintzilikatu ditu. Hainbat teknika erabili dituzte: akuarela, pastela, itzalak, egur margoak, olio eta espatula.



Jende ugari izan zen herenegun arratsaldean egindako inaugurazio ekitaldian. I. GARCIA

Erakusketa otsailaren 25a arte izango da ikusgai.

33 urte daramatza pintura irakasle gisa Colmenerok, eta pozik dago ekimenarekin eta bere irakasle jarduerarekin: «Ikasleek ikasteko gogo handia dute eta maitasun asko ematen didate. Orain zortzi urte egin genuen beste erakusketa bat, ikasleen parte hartzearekin ere. Nire ustez horrelako beste hainbat erakusketa egin beharko litzateke. Artea hain da polita...».

«Sortu egin behar da»

Margolanetan denetarikoa gaiak ikusi daitezke. «Ikasleei libre utzi diet. Beraien sormena da. Ez da kopiatu behar da, beti sortu egin behar da», dio Colmenerok. Ikasleei pintura klaseetara joateak lasaitasun handia ematen diela gaineratu du. «Horrez gain, sormena asko lantzen dute».

Herenegun egin zuten inaugurazioa eta jendez gainezka izan zen. Artista gazteek beraien lanak erakusten zizkieten gurasoei. Mahai ganean egindakoa horretan zintzilikatuta ikusirik, artista sentiarazi die.

Artisten lehen pausoak

www.euskalherriko **PLAZA.com**

Urtarrileko aldapa samurtzeko...

Bidalketa gastuak DOAN!!

Urtarrilaren 31 bitartean

Gainera:

- Euskal-linge Esku oihala (70 cm x 140 cm): **24 €**
- Puntutan Agenda bat: **8 €**
- Bi agenda: **12 €**

Iparragirre Gartziategi Larre-Gain

-%5+ puntu estrak

Sariak:
Otorduak sagardotegietan

Erosketa bakoitzean eskuratzen diren puntuekin sariak trukutzen dira



Erakusketan ikusgai dauden zenbait margolan. HITZA



Josu Amilibia, ezkerrean, alkate kargua hartu ondoren herritarrei zuzendu zitzaizen. A. IMAZ

Josu Amilibiak ordezkatu du Arantza Aburuza Adunako alkatetzan

Zortzi urteko alkate ibilbideari amaiera eman arren, Aburuzak zinegotzi bezala jarraituko du

Asier Imaz Aduna

Josu Amilibia da Adunako alkate berria, Arantza Aburuzak «arrazoi pertsonalak» medio kargua utzi ondoren. Alkate aldaketa atzo egin zuten, udalaren ohiko batzarrean, eta zinegotzi guztien adostasunarekin.

Arantza Aburuzak 2003an hartu zuen alkatetzaren ardura, herriko udal plataformaren buru aurkeztu eta gero. 2007ko udal hauteskundeetan, ANVren zerrendaburu bezala aurkeztu zen, eta karguarekin jarraitzeko adi-

na babes jaso zuen herritarren aldetik. Hirugarren legealdirako, inongo zerrendetan ez joatea erabaki zuen Aburuzak. Herritarrek boto zuriaren aldeko aukera egin zuten, aurreko udal taldeak jarraitu zuen udalaldearekin, aurreko alkatea buru zela. Atzo, zortzi urteko ibilbideari amaiera ematea erabaki zuen Arantza Aburuzak, nahiz eta zinegotzi bezala udal taldean jarraituko duen.

Kargu uztea aho batez onartu zuten gainontzeko udal hauteskundeak. Josu Amilibiaren izendapena babesterakoan, adostasun bera azaldu zuten. Ondorioz, ondorengo lau urteetan Josu Amilibia izango da Adunako alkate berria.

«Adunako alkatea izatea ohore bat da, eta pertsonalki erronka garrantzitsua»; hauek izan ziren, kargua hartu ondorengo Amili-

biaren lehen hitzak. Aurreko alkateek ez diotela lan erraza utzi onartu zuen ondoren, «gaitasun handia erakutsi baitute», eta maila horretara iristen saiatuko dela esan zuen.

Herri bezala, hurrengo urteetan Adunak «erronka potoloak» dituela aipatu zuen, eta horiei «gogotsu eta indartsu» heltzeko asmoa zuela azaldu zion herritarrei: «Abiadura Handiko Trenaren afera, Erriberako poligonoa, hondakinen kudeaketa eta beste hainbat gai ditugu aurretik. Udal talde osoak bezala, nire indar guztia jarriko dut gai horien inguruan herriak duen ikuspuntua aurrera eramateko».

Arantza Aburuzak alkate kargua utzi arren, zinegotzi bezala laguntzeko prestutasuna eta konpromisoa azaldu zion, azkenik, Josu Amilibiari.

Ontzi berrerabilgarrien kanpainaren lehen zozketa egin dute

A. Imaz Amasa-Villabona

Villabonako Udalak eta Kutxa Ekoguneak, herriko arraindegi eta harategien laguntzarekin, hondakinen prebentzioaren inguruan ontzi berrerabilgarriak erabiltzearen aldeko kanpaina martxan jarri zuen. Sei hilabetez luzatuko da kanpaina, eta lehen zozketa egin dute, jadanik.

Bezeroak, ontzi berrerabilgarria arrandegian eta harategietan erabiltzen duen bakoitzean,

hilero zozketatuko den 20 euroko bonoa irabazteko aukera izango du.

Bonoa arrandegian edota harategian bertan gastatzeko izango da. Lehenengo zozketen irabazleak ondorengoak dira: Maite Ugarte, Isidoro Martin, Maite Ortiz, Iñaki Artola, Isabel Orrillo, M^a Jesus Belamendia eta Arantza Mujika. Aldiz, Miguel Ruiz de Amiano arrandegiko irabazlea ez da oraindik agertu, ez baitzuen izena txartelean jarri.



Ontzi berrerabilgarrien zozketako hainbat saridun. A. IMAZ

Irudia ◊ Villabona



PIANO JOLEA FLEMING-EN

Villabonako Fleming eskola publikoan Xabier Lizaso piano jole oriotarraren bisita izan zuten iragan ostiralean. Bertatik azaldu dutenez, «hasieran Arratzainen egon zen Lizaso ikasle guztiekin, eta gero, Arroara jaitsi zen». Ostiraleko saioan Frank Liszt hobeto eza-gutu zuten: «Primeran pasa genuen musikarekin jolastuz». HITZA

Udalarekin euskaraz, zure eskubidea delako!

Udalaren zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituzte. Udalaren zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituzte. Udalaren zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituzte.

TOLOSAKO UDALA

Herritarren zerbitzua: Tolosaldea eta Leitzaldea
Tel.: 943 69 35 12 | Fax: 943 69 14 18
012277@tolosaldea.net

VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA

Euskalduna, Denona eta Denontzat

JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA

Matrikulazio epea:
urtarrilaren 30etik otsailaren 10era

Fleming Ikastetxea.
Hezikuntza Amara (2-6 urte)
Lehen Hezikuntza Arratzainen (6-12 urte)
Tel.: 943 69 35 12 • Tel./Fax: 943 69 14 18
012277@hezkuntza.net

HAUR TXOKOA ZERBITZU BERRIA
7:30etatik 9:00tara
16:00atik 17:00tara

Eniobea B.H.I.
Villabona
Eniobea Ikastetxea.
Ondorengoak: Bigarren Hezikuntza
Arratzainen (12-16 urte)
Tel./Fax: 943 69 37 33
012952@hezkuntza.net
www.eniobea.net

Itziar Gastearena • Futbol jokalaria

Futbol handian jokatzeko aukera Tolosa CF taldeak eman zion billabonatarrari 13 urte zituela; hiru urtetara, Superligan aritzeko aukera Realaren eskutik etorri zitzaion erdilariari.

«Ez nuen pentsatzen Zubietara horrenbeste ikusle joaten zenik»

Asier Imaz Villabona

Emakumeen futbol ligako lehen mailari Superliga deitzen zaio, eta bertan dago Real. Iazko denboraldiaren erdi aldean, Tolosa CF taldean jokatzeko ari zen Itziar Gastearena (Villabona, 1993) fitxatzea erabaki zuten txuri-urdinek. Billabonatar gazteak erdiko ezker hegalean jokatzeko du, nahiz eta eskuina den.

Noiz hasi zinen futboleko jokatzeko, eta zein izan da zure ibilbidea?

Haurra nintzela hasi nintzen futboleko jokatzeko, benjaminetan, Eskola Kiroleko garaian. Hasieran mutilekin nahastuta ibiltzen ginen, eta gero neskek neskek, hiru kirol egiten: areto futbola, saskibaloia eta eskubaloia. Betidanik gustatu izan zait futbola, eta alebinetan horretan buru belarri hasi nintzen. Eskola Kirolean nengoela Tolosa CF-etik deitu zidaten, eta bertan hasi nintzen jokatzeko. Hiru urtetara, Realera joateko aukera etorri zitzaidan.

Nola moldatu zinen areto futboletik zelai handiko futbolera?

Areto futbola oso polita iruditzen zitzaidan, baina futbol handian hasi nintzen, zelai handiagotan, leku gehiago daukazu eta asko gustatu zitzaidan.

Orainoz bi dei garrantzitsu jaso dituzu zure kirol bizitzan, mugarririk egin dutenak, gainera.

Poz handia eman zidaten biek. Tolosa CF-ekoa bizilagun baten bidez izan zen: berak lagun batzuk zituen taldearekin lotura zutenak, eta nitaz hitz egin zien. Gero, entrenatzaera joateko esan zidaten, nahiz eta 13 urte besterik ez nituen. Adin horrekin, Eskola Kirolean nengoen oraindik eta ezin nuen Tolosarekin jokatu, baina entrenatzen hasi nintzen. Ezin nuen sinetsi ere egin. Gero, Realaren deia etorri zen, hiru urtera edo. Poz handia sentitu nuen, baina ez nuen inondik inora espero, denboraldiaren erdian deitu baitzidaten. Jendea falta zuten, eta niri deitza erabaki zuten.

Tolosatik Realerako aldaketa hori, nolako izan zen?

Ez nuela ezer jokatu pentsatzen nuen hasieran, aulkian

egongo nintzela ikasten. Baina oso ondo joan zitzaidan, jendea falta zitzaienez, entrenatzaileak nirekin asko kontatu zuen, eta hori eskertzekoa da. Egutero entrenatzen duzu, eta oso desberdina da. Tolosan hiru egunez entrenatzen genuen, eta Zubietan ia egutero, eta gogorrago gainera; ikasten ari naizenez, pixka bat zailagoa da.

Ikasketak, entrenamenduak eta partidak; nola antolatzen duzu astea?

Iaz batxilergoa amaitu nuen, eta aurten irakasle ikasketak egiten ari naiz unibertsitatean. Goizetan klaserara joaten naiz, eta arratsaldeetan Zubietara, entrenatzaera. Gero asteburuan partidak izaten ditugu.

Eta partidak Euskal Herritik kanpo ere jokatzeko dituzue.

Etxean jokatzeko dugunean, normalean igandetan izaten da. Gertuko aurkariaren bat baldin bada, larunbatetan ere jokatzeko. Kanpoan tokatzen denean, Bartzelonan, Madrilen... asteburu guztia pasatzen dugu: larunbat goizean abiatu eta igande gauean itzultzen gara.

Tolosatik Realerako aldaketa horretan, aurkarietan ere nabarituko zenualdea.

Oso desberdina da. Maila altuagoa da, baina talde horien aurka jokatzeko esanahi handia dauka, ilusio handiagorik izaten baituzu.

Superligan jokalariek soldata jasotzen al dute?

Aurten sinatu dugu kontratua. Bartzelonako jokalariek eta guk bakarrik daukagu horrelako kontratu mota. Nesken futbol munduan, hileroko ordaintzen zuten lehen. Orain, gure kasuan, urte guztiko kontratua daukagu, bere kotizazio eta guzti.

Iritsi zaren lekura iristerik pentsatzen al zenuen?

Beti daukazu Realaren erreferentzia buruan, baina, honaino iristerik ez nuen pentsatu inoiz.

Taldeari dagokionez, kirol arloan, erdiko postuetan aurkitzen da sailkapenean une honetan.

Bai, denetik izan dugu emaitzei begiratuta. Talde indartsuen aurka, irabaztea espero ez genuene-

an, partida aurrera atera dugu, eta alderantziz, irabazteko lehiak galduta ere egin ditugu. Taldeak, gutxien gutxien, beti dena ematen du, eta hori eskertzekoa dela uste dut; beti saiatzen gara hiru puntuak etxera ekartzeko.

Nolako ezaugarriak ditu zuen taldeak?

Denetik daukagu, baina baloia jokatzeko gustatzen zaigu. Erdialdean jokalarik oso onak ditugu, eskarmentu handikoak, eta lan handia eta ona egiten dutenez, taldeari asko laguntzen diote baloia ongi mugitzeko. Aurrean, bestalde, jende oso azkarra daukagu eta kontraerasoan ateratzeko laguntza handia dira.

Denboraldia zein helbururekin hasi zenuten?

Partidatik partidara joateko asmoz hasi genuen denboraldia. Liga irabaztera joan behar genuen edo horrelakorik pentsatu gabe.

Jaitsiera postuak behintzat urrundituzue, arrisku hori amaitu dela dirudi.

Aukera hori sahiestu dugula uste dut. Laugarren postuaren lehian ere ibili gara, Erreginaren Kopara sailkatzeko balio duen postu horren inguruan. Hala eta guztiz ere, hori ez da garrantzitsua, lehen esan bezala, partidaz partida joatea baiziki.

Zein postutan jokatzeko duzu Realera?

Erdian, eta nahiz eta eskuina izan ezkerretik jokatzeko. Tolosan horrela hasi nintzen jokatzeko, hankaren aurkako lekuan edo, eta egia esan gustura ibiltzen naiz leku horretan.

Nolako jokalaria zara?

Nire ustez, abiadura duen jokalaria naiz, eta aurkariak hori erabiltzeko saiatzen naiz. Gero, lasaia ere banaizela esango nuke.

Nesketan eta mutiletan, zein futbol jokalarik gustatzen zaizkizu?

Messi munduko onena dela esango nuke, eta gero, Xabi Prieto ere asko gustatzen zait. Kasta handiko jokalaria dela iruditzen zait, partidetan dena ematen duen horietakoa. Bere buruz buruko jokaldiak ere asko gustatzen zaizkit, aurkariak atzean nola uzten



HITZA

dituen eta abar. Nesketan Verónica Boquete oso ona da, Espaynoleko jokalarik ohia, gero Amerikako Estatu Batuetara joan zena. Gure taldean, berriz, Maite Lizaso asko gustatzen zait. Erdian jokatzeko du, eta baloia oso ongi mugitzen du, eskarmentu izugarria dauka.

Bartzelona eta Athletic daude lehen postuetan Superligan. Beste taldeekiko, bi talde hauek maila bat gorago al daude?

Bartzelona agian bai, oso ongi jokatu du futboleko eta oso talde ona da. Baina Athletic-en aurka, adibidez, garaipena lortzeko aukerak izaten ditugula pentsatzen dut. Sailkapenean goian gauden talde guztiak ondo gabiltzala uste dut, eta batzuren eta besteren ar-

tean ez dago horrenbesteko alderik.

Ikusle aldetik, nolako jarraipena dauka Superligak?

Ez dago gaizki. Zubietara jende gutxiago joaten zela uste nuen, baina partida gehienetara jende asko joan ohi da. Kanpoan jokatzeko dugunean, batzuetan ikusle gutxi izaten den arren, jendetza hurbiltzen den partidak ere izaten dira; duela bi asteokoa da horren adibide.

Eta komunikabideetan?

Nire ustez, iaz aurten baino partida gehiago eman zituzten telebistan. Gehiago ematea gustatuko litzaidake, horrela jendeak egiten dugun lana ikusiko luke; nire ustez, jendeak ez daki nola jokatzeko dugun.



HITZA

→ **Laburrak****'Nader y Simin. Una separacion'** filma ikusgai

LEITZA ▶ Ihoeteko atsedenaren ostean, zinema saioa izango da asteburu honetan. Asghar Farhadiren *Nader y Simin. Una separacion* film irandarra emango dute, bihar 22:30ean, eta igandean, 19:30ean.

Pirritx eta Porrotxen saiorako txartelak salgai

IBARRA ▶ Subegi kultur elkarteak eta Eneko Aritzaren Lagunak kultur taldearen eskutik, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Zazpikoloroa* ikuskizuna izango da ikusgai otsailaren 3an, Belabietako kiroldegian, 18:00etan hasita. Sarrerak Ibarroko Lurdes liburudendan, Zubiaurren, Subegin eta Danon Txokoan; Tolosako Kopibat, Raku eta Ikaizan; Irurako Zaharren biltokian; Anoetako Itzulian; Villabonako Iratzarren eta Leitzako Maimur liburudendan daude eskuragarri. Dagoeneko 150 saldu dituztela azaldu dute antolatzaileek.

Zuberoara Haitzetan Raju menditxartelarekin

IBARRA ▶ Haitzetan Raju menditxartelarekin irteera antolatuko da asteburu honetarako. Santa Engrazira joango dira, eta animatzen direnek «lo zakua eta ondo pasatzeko gogoia, baino ez dutela eman behar esan dute. Bihar irtengo dira Ibaratik 18:30ean, eta igandean itzuli. Parte hartzeko 652 715 800 zenbakira deitu behar da.

Auzolanerako deia baratzean laguntzeko

BERROBI ▶ Auzolanerako deia egin du Iñaki Bera, herriko nekazari berriak. Bere Barazki bizidunak izeneko negutegian lagundu nahi dutenek, aurreko igandean bezala, honetan ere bertaratu besterik ez dute egin behar.

Alex Mujikak irabazi du ogitarteko lehiaketa, Madrid Fusion azokan

Ehun ogitartekoren artean, leitzarraren txangurru eta antxoena aukeratu du epaimahaiaik



Alex Mujika sukaldaria. TTPI TTAPA

I. Terradillos Leitza

Bere ibilbidean sari berri bat gehitu du Alex Mujika sukaldari leitzarrak. Izan ere, Madrilan egiten den Madrid Fusion gastronomi azokan IX. Ogitartekoaren Sarraketako irabazlea izan da.

Iruñeko Basa Kabi jatetxeko sukaldariak txangurru eta antxo-

en ogitartekoa aurkeztu zuen lehiaketara. 100 lagun inguru aurkeztu ziren, eta Lorenzo Diazek zuzendutako epaimahaiaik Mujikaren ogitartekoari eman zion lehen saria. 3.000 euro jaso zituen sari gisa.

Agate Deuna eskean parte hartzeko aukera zabaldu du Hauspoak

Ibarroko elkarteak egun osoko egitaraua antolatu du otsailaren 4rako; izena otsailaren 2a baino lehen eman behar da

I. Terradillos Ibarra

Ibarroko Hauspoa kultur elkarteak Agate Deuna eskean antolatu du datorren larunbaterako, otsailaren 4rako. Egun hori behar bezala prestatzeko bi entsegu egun jarri dituzte, bata urtarrilaren 31n, eta bestea otsailaren 2an. Azkueko kale hezitzaileen lokalean izango dira entseguak, 20:00etan hasita.

Kultur elkartetik adierazi duteenez, kantuan atera edota egunean zehar egongo diren beste ekin-tzetan parte hartzeko aurrez eman beharko da izena. Herriko

elkartean zein Zubiaurre tabernan jarri dituzten zerrendatan norberaren izen eta abizena jar-tzeaz gain, jarduera zehaztea ere eskatu dute. Otsailaren 2a baino lehen izena ematea beharrezkoa dela esan dute.

Aurtengoan, Agate Deuna eskerako egun osoko egitaraua antolatu du Hauspoa elkarteak. Goizean, 10:00etan abiatuko da taldea San Bartolome plazatik eta Uzturpe ikastola dagoen alderdian (Ospela) baserri baserri ariko da kantari. Eguerdian indarrak berritzeko parada izango da Xepela elkartearen antolatutako bazkarian (12 euro). Arratsaldean, berriz, 17:00etan abiatuko da berriro ere plazatik taldea, eta oraingoan, Izaskun aldera (Egutura) joango da.

Hauspoa kultur elkarteak herritar guztiak animatu nahi ditu ekitaldi honetan parte hartzera.

Ikuskizun berria estreinatuko du Alurrek martxoan

'1512, izanak dirau' izeneko lan berriaren bitartez, Nafarroako historia kontatuko du Ibarroko dantza taldeak

Iñigo Terradillos Ibarra

Lan berria estreinatuko du aurki Alurr dantza taldeak. *1512, izanak dirau* izena emango du, eta martxorako taula gainean izango dela adierazi dute dantza taldeko arduradunek.

Ikuskizun berriaren dantzari gazteak ariko dira, eta Aiert Beobide izango dute zuzendari. Azaldu dutenaren arabera, «Nafarroako historia kontatzen da emanaldi berriaren bitartez, dantza tradizionala eta koreografia berrien uztartketaren bitartez».

Bestalde, Ibarroko dantza taldea hainbat herritan izan da *Oinazez* ikuskizunarekin. Hain zuzen ere, Azpeitian izango dute hurrengo emanaldia, otsailaren 26an, San Agustin elizan. Aurrera egin nahi duen pertsonaia baten istorioa kontatzen du ikuskizu-

nak eta Aiert Beobide da lan «berritzaile» horren zuzendaria. Zuzeneko musikak lagunduta, sor-kuntza berezian bidez euskal dantza tradizionala eta berria nahasten dituzte emanaldi honetan.

Halaber, dantza taldeak euren emanaldietako musikaria den Jagoba Astiazaran zestoarra zori-onduratu du, Donostiako Orfeoia-EHU ikerkuntza saria jaso duelako. Nahiz eta gaztea izan, musika zuzendariak musika ibilbide oparoa du. Alurrek «kultura-aren alde egiten ari den lan handia» eskertu nahi dio.

Zozketaren irabazlea

Bestalde, Ibarroko taldeak aurtun ere txartelak atera ditu «gastuei aurre egin ahal izateko». Euskal dantza lantzen ari diren haurrek behar duten materiala eskuratzeko erabiliko dute dirua, hain justu. Bada, urtarrilaren 13an egin zen zozketa, eta sariduna Nahia Murillo dantza taldeko ikaslea izan da. Ramon Gartzia diseinatutako antzinako bi jantzi edo 420,70 euro zen saria, eta azkenean dirua aukeratu du.



Nahia Murillo sariduna eta Gixane Urrestarazu dantza irakaslea. HITZA

◉ **Hilberriak****ESKELAK**

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

JOXEMARI IRASTORZA IRAZUSTABARRENA

-Golan bego-

Herenegun hil zen (8) urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedelkapena hartu ondoren.

Arreba: Iñaki eta Anastasio Anzures (†); Iobak: Maixa eta Juan Mari Kortabaria (†); Jose eta Juli Aramburu; Ioba-biobak: Eñaut, Amaia Zufara, Imber, Iñe, Iñe, Iñe eta gainerako ahizak.

Haren arimaren alde orotik beti eskatzen dituzte eta arren etorri-zaletza GALUR OSTEGUNA ametsaldeko SEIETAN, LOINAZTAR SAN MARTIN DELPIAAREN parrokian elizan, gozua eurrean dela egingo den hitza-elizkizunarekin. Eskerik asko gutxiak auzoak.

BEASAIN, 2012ko urtarrilaren 26a

Hilabidea: Zabalburua 1-40

Ofiziala: Goxua Beasaingo Goleki Beldakarengandik.



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	6°
HOTZENA	2°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

DEIALDIAK

■ **Villabona-Zizurkil.** Jesusen Bihotza ikastolak antolatutako kultur astearen barruan gaur, 09:00etatik 13:30era sexu heziketa saioa DBH 3ko ikasleentzat; 15:00etan eta 16:00etan *Erleak* hitzaldia LH 5 mailako ikasleentzat lehenik, eta LH 6 mailakoentzat gero; 15:00etatik 16:30era berriz, *Seguru nabigatzea* hitzaldia izango da DBH 2ko ikasleentzat; 15:30ean Patxin eta Potxin pailazoak HH eta LH 1 eta 2ko haurrentzat, frontoian; eta 17:00etatik 18:30era *Seguru nabigatzea* hitzaldia izango da Txermingo liburutegian gurasoentzat.
■ **Tolosa.** Hirukide ikastetxeak antolatutako musikaterapia saioa gaur, 16:30ean Gainberri eraikinean. Saioa 0 eta 18 hila-bete bitarteko haurrentzat da.

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** May Colmenero margolariaren ikasleen talde erakusketak ikusi daiteke Aranburu jauregian otsailaren 25a arte.
■ **Ibarra.** Jaietako argazki erakusketak dago ikusgai Benito Iza-girre kultur etxean martxoaren 2a arte.

Irudia Amezketeta



AKELOK-EN SARIDUNAK

Amezketako Akelok guraso elkarteak hiru sariren zozketa egin zuten orain gutxi eta saridunen berri eman nahi izan du. Otarra Eider Telletxeak jaso duela jakinarazi du; aukeran jarritako Euskal Herriko nekazal etxe batean bi lagunentzat bi eguneko egonaldia edo gastutarako 300 euroak Sergio eta Alvaro Mañosoren gurasoek eskuratu dute (irudian); eta azkenik, 150 euroko afari txekoa Mikel Goikoetxeak jaso du. HITZA

Programazioa

28 KANALA

■ **08:30.** On ein ■ **09:00.** Ama-gaibeko istorioa. ■ **09:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **10:00.** Walker. ■ **10:30.** Bat eta bat. ■ **11:00.** Bat eta bat (Jarraipena). ■ **11:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **12:00.** Kantari Oñati. ■ **12:30.** Berbetan. ■ **13:15.** Foorfur. ■ **13:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **14:00.** Walker. ■ **14:30.** Bat eta bat. ■ **15:00.** Bat eta bat (Jarraipena). ■ **15:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **16:00.** Kantari Oñati. ■ **16:30.** Berbetan. ■ **17:15.** Foorfur. ■ **17:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **18:00.** Kafe t'erd. ■ **18:30.** Gipuzkoa kultura. ■ **19:00.** Bizitegia. ■ **19:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **20:00.** Ikusmira.

(*16:30etik 20:00etarako tartea lau orduko errepikatuko dute)

TXOLARRE IRRATIA (107,6 edo www.txolarre.org)

■ **11:00-12:00.** Tolosaldeko Ahotsa albistegia. Saioan, besteak beste, Josu Amilibia Adunako alkate berriaren adierazpenak entzun ahal izango dira. ■ **12:00-13:00.** Tolosaldeko Ahotsa magazina. Saioan, bes-

teak beste, HIAHOKA izeneko egitasmoaz hitz egingo dute Petra Elserrekin, eta horrekin batera, May Colmeneroren ikasleek Tolosako Aranburu jauregian jarri duten talde erakusketak bisitatuko dute. ■ **13:00.** Lehiaketa eta disko eskainiak. ■ **13:30.** Info 7ko albistegia. ■ **14:00.** Tolosaldeko Ahotsa albistegia. ■ **16:00.** Gazte Zaparrada saioa. ■ **17:00.** Kabitik plazara saioa. ■ **18:00-20:00.** Tolosaldeko Ahotsa magazina eta albistegia. ■ **20:00.** Info 7ko albistegia. ■ **21:00.** Berberin.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 01 28.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



harpidedun izateak badu saria

zozketa

1 Zabala Sagardotegia

Bi lagunentzako bazkaria edo afaria

Garagartza baserria
Aduna
Tel.: 943-69 07 74
www.rzabala.com




Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

2 Isastegi Sagardotegia

Bi lagunentzako bazkaria edo afaria

Aldaba Txiki, 15
Tolosa
Tel.: 943-65 29 64
www.isastegi.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 Sarasola Sagardotegia

Bi lagunentzako bazkaria

Asteasu
Tel.: 943-69 02 83



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

4 EUREKA! zientzia museoa

Bi lagunentzako bina sarrera

Mikeletegi, 43-45
Donostia
Tel.: 943-01 24 78




Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **54**

5 'Zazpikoloroa' Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Bi lagunentzako bina sarrera

Belabieta kiroldegia · Ibarra
Otsailak 3 Ostirala
18:00etan



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **55**

Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.